

Turistak

Ez dakit ezagutzen duzen, baina badabil sarean Joseba Gabilondoren Anton Abadiari buruzko artikulu bat. Berean Gabilondok Euskal Herriak, neurri batean behintzat, bere burua ikusteko duen ikuspuntu koloniala aztertzen du, turismoak gure buruei erreparatze horretan izan duen eragina nabarmenduz.

Gabilondok bere argudioan Jon Juaristiren aipu bat dakar bukaera aldera, hauxe dioena: “Zertarako galdu denbora David Livinstone doktorea bilatzen, batek bizi badezake exotismoaren esperientzia bere etxetik bertara, eta batere arriskurik gabe?”.

Etxetik bertara, jakina, Euskal Herria da, bai Iparraldekoa, bai Hegoaldekoa, zeini, gainera, Livinstone ibili zeneko lurraldeetako biztanleen ezaugarriak erantsi zitzaizkion Euskal Herriko biztanleei: salbaia onaren ezaugarriak, alegia.

Galdetuko didazue zertara ekarri dudana Gabilondoren artikulu hau literatur kanonaz ari garenotan. Beno, badu zer ikusia, ez pentsa. Dena dela, goiko horrekin loturik beste pasadizo bat ekarri nahi dut hona.

Behin lagun batzuekin afaltzen ari nintzela Bernardo Atxaga eta xingola urdina (akordatu-ko zarete) mahairatu ziren. Nire elkarrizketa kidea, ezker abertzaleko sutsua, Atxagaren kontra ari zen jo eta su xingola urdina jantzi zuelako. Elkarrizketa kideak, nahiz euskalduna izan, Atxaga zuen Euskal Literaturako idazle ezagun bakarra, eta ezagutza hori “kanpotik” egin zuen, alegia, Atxaga Sari Nazionalari esker Madrilen ibili eta handik bueltan edo. Turismoaren kasuan bezala gure buruez “kanpotiko” botere batek seinalatzen zion nire lagunari bere “etxeko” on zer zen.

Seguru aski gure sistema literarioak, Ur, subalternoa delakoz, antzeko parezido funtzionatzen du, baita gure buruak irudikatzeko moduek ere.

Zer dira bestela euskalduntasunaren Iparraldeko elaborazio zuri-berde-gorri *kitsh* horiek



Juanjo Olsagarre

Apalategi

Bastervetxea

guztiak? Edota Hegoaldeko abertzaletasunak edozeinen larrekotasuna eta zata handitasuna azpimarratzeko joera? Edo zenbait girotan lan intelektualarekiko dagoen mesprezu harrokoa?

Juan Antonio Mogelen *Peru Abarkan* argi eta garbi adierazten da, bai maisu Juanek duen begiradan bai Peruren salbaia onaren ezaugarrietan: ona, ino-

zentea, azkarra, naturan baitaratua, garatu gabea, benetako jakintzaz jantzia, alegia, gizon ilustratuak, Jean-Jacques Rousseauk, bere mundua oinarritzen duen gunea; autentikoa.

Esan liteke neurri batean geuron buruen turistak garela, eta joera hori ageri da euskal literaturak izan ditzakeen bi adarretan: nati-bismoan eta modernismoan, hots “bertakoa” erakusteko joeran eta “kanpokoarekin” bat egiteko joeran. Izenda dezagun Atxaga, bat, eta Saizarbitoria, bi, adibidez.

Zer nahi duten gugandik kanpora joaten garenean? Ni oso gutxi ibili naiz idazle moduan kanpoan, badaude horretarako ni baino hobeki prestatuak (Kirmen Uribe, Atxaga bera, Zaldua eta abar), baina iruditzen zait neurri batean entzuleez bestelakoak izatea nahi dutela, alegia, bereziak, exotikoak, salbaia onak, inozenteak, ez modernoak, alegia, modernotarako, demagun Madrilen edo New Yorken, badaudelako haiek.

Zentzu horretan Gabilondok dioten bezala post-kolonialak gara, *El País*ko *Babeliak* Saizarbitoriari egin zion elkarrizketa luze bateko izenburuan –“Erabat modernoak”– argi ikusten zen bezala.

Beraz, bai, Ur, uste dut gure sistema literarioan “kanpoak” oraindik agintzen duela. “Barnekoari” buruz zer esan... Zure eta nire komunitateak, Ur, dezente diru gutxiago paratu dute Josirenak baino eta neurri horretan seguru aski gutxiago daukate esateko, askotan dirua izaten baita interesaren erakusle. ■

«
Esan liteke neurri batean geuron buruen turistak garela,
eta joera hori ageri da euskal literaturak izan ditzakeen
bi adarretan: nati-bismoan eta modernismoan,
hots ‘bertakoa’ erakusteko joeran eta
‘kanpokoarekin’ bat egiteko joeran
»